



## **GARAPENERAKO LANKIDETZAREN EUSKAL AGENTZIAREN KONTSEILU ERREKTOREAREN 2019ko UZTAILAREN 9ko BILKURAREN AKTA.**

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren egoitzan (Lehendakaritzako eraikina, Nafarroa kalea 2, Gasteiz), 2019ko uztailaren 9ko 10:00etan, Kontseilu Errektorearen bilkura hasi da, honako pertsona hauek bertaratu direlarik:

- Lehendakaria: Jonan Fernández Erdozia jauna, Agentziaren eta haren Kontseilu Errektorearen lehendakaria, Jaurlaritzako Lehendakariaren ordezkotzaz (11/2017 Dekretua, apirilaren 25ekoa).
- Kontseilukidea: Fátima Ansotegi Elordi andrea, Administrazio eta Finantziario Sanitarioko sailburuordea, Osasun Sailaren izenean.
- Kontseilukidea: Oihana Etxebarrieta Legrand andrea, Eusko Legebiltzarreko Giza Eskubide eta Berdintasun Batzordeko kidea, Eusko Legebiltzarren izenean.
- Kontseilukidea: Sofía Marroquín Guerrero andrea, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluaren izenean.
- Kontseilukidea: Josu Urrutia Beristain jauna, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluaren izenean.
- Idazkaria: Paul Ortega Etcheverry jauna, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren zuzendaria.

Ezin etorria adierazi dutenak:

- Kontseilukidea: Monika Hernando Porres andrea, Biktimen eta Giza Eskubideen zuzendaria, Lehendakaritzaren izenean.
- Kontseilukidea: Alberto Alberdi Larizgoitia jauna, Ekonomia, Finantzak eta Aurrekontuetako sailburuordea, Ogasun eta Ekonomia Sailaren izenean.
- Kontseilukidea: Bittor Oroz Izagirre jauna, Nekazaritza, Arrantza eta Elikagaien Politikako sailburuordea, Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren izenean.
- Kontseilukidea: Patricia Bárcena García andrea, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluaren izenean.
- Kontseilukidea: Eusko Jaurlaritzaren Giza Eskubide eta Berdintasun Batzordearen lehendakaria, Eusko Jaurlaritzaren izenean.

Era berean, guk gonbidatuta eta gai-zerrendan bildutako gaiak aurkezteko laguntza teknikoa emateko xedez, Ainara Arrieta Archilla andrea –GLEAren Koordinazio Teknikoaren arduraduna– eta Noemí de la Fuente Pereda andrea –GLEAren Koordinazio Estrategikoaren arduraduna– bertaratu dira.

## Sarrera

GLEAren eta haren Kontseilu Errektorearen lehendakariak hartu du hitza bertaratutakoei ongietorria emateko, eta bilkurari hasiera eman dio, gai-zerrenda honekin:

1. Ekainaren 4an egindako aurreko bilkuraren akta irakurtzea eta onartzea, hala badagokio.
2. Ekintza Humanitarioa deialdiaren irizpide orokorrak onartzea
3. Zuzeneko dirulaguntzen proposamenak onartzea
4. 2018ko Memoria
5. Lanpostu Zerrenda aldatzeko proposamena onartzea
6. Galde-eskeak

Lehendakariak eman dio hasiera bilkurari eta jakinarazi du aipatutako dokumentazio guztia alde zurretik bidali zaiola Kontseilu Errektore honi.

### **1. Aurreko bilkuraren akta irakurri eta onartzea**

Bertaratutakoek ohar bat bera ere egin ez dutenez, 2019ko ekainaren 4ko bilkuraren akta onartu da, bertaratutako guztien aldeko botoekin.

### **2. Ekintza Humanitarioa deialdiaren irizpide orokorrak onartzea**

Jonan Fernandezek gogorarazi du ekainaren 18ko 90/2019 DEKRETUA, ekintza humanitarioko esku-hartzeetarako laguntzak arautzen dituena, argitaratu zela joan den astean. Dekretu horren 15. artikuluan zehazten dira deialdi humanitarioak emateko irizpideak.

Ainara Arrietak xehetasun handiagoz azaldu ditu erantsitako koadroan bilduta dauden irizpide orokorrak.

Jonan Fernándezek adierazi du Kontseilu Errektoreari dagokiola dagokion izapidetzeari hasiera eman ahal izateko irizpide orokorrak onartzea.

Bozkatu egin da eta Kontseilu Errektorearen bilkurara bertaratu diren pertsona guztien aldeko botoekin onartu da.

### 3. Zuzeneko dirulaguntzen proposamenak onartzea

Ainara Arrietak zuzeneko dirulaguntza emateko proposamenen xehetasun teknikoak azaldu ditu; horri buruzko dokumentazioa alde aurretik igorri da:

- Lehenengoa Hegoari emango zaio, eta horrek ahalbidetuko du 50.459 euroko dirulaguntza ematea Garapenari Buruzko Ikasketen V. Nazioarteko Biltzarra prestatzeko eta egiteko. Biltzar hori 2020ko maiatzean egingo da Bilbon, eta Garapenari buruzko Ikasketen Espainiar Sarearen (REEDES gaztelaniaz) ekimen bat da.
- Bigarren laguntza Venezuelako Errefuxiatuentzako Jesuiten Zerbitzuari emandako dirulaguntza da, Venezuelako krisi politikoari eta ekonomikoari erantzun azkarra emateko. 75.000 euroko ekarpena eginez, osasunaren, nutrizioaren eta hezkuntzaren alorreko zerbitzuak emango zaizkie Caracasen egoera ahulenean dauden pertsoneri.

Jonan Fernándezek adierazi du Kontseilu Errektoreari dagokiola dagokion izapidetzeari hasiera eman ahal izateko zuzeneko emakidarako proposamenak onartzea.

Bozkatu egin da eta Kontseilu Errektorearen bilkurara bertaratu diren pertsona guztien aldeko botoekin onartu da.

### 4. 2018ko Memoria

Paul Ortegak azaldu du komunikazio-plana egiteko komunikazioaren alorreko pertsona bat lanean hasi izanak GLEAren urteko memoriaren formatua aldatzea ekarri duela. Aurtengo asmoa memoria bisualago bat egitea da (adibidez, herrialdeen zerrenda mapa formatuan erakustea) eta horretan dihardugu.

Lehenengo kapituluan GLEAk 2018an gauzatutako jardueraren berri ematen da, 2018-2021 aldiko Garapen Lankidetzarako IV. Gida Planean ezarritako 8 ardatz estrategikoen eta erabilitako baliabideen arabera.

Bigarren kapituluan aurrekontua gauzatzea aztertzen da eta dirulaguntzak 2018an banatzeari buruzko ondorio nagusiak biltzen dira. Berrikuntza gisa, eta osagarri gisa, Excel bat jarri da eskuragarri. Excel horretan 2018an onartutako ekimen guztiak biltzen dira eta erabiltzaileak interesgarritzat jotzen dituen datuak erabiltzea ahalbidetzen du.

Bozkatu egin da eta Kontseilu Errektorearen bilkurara bertaratu diren pertsona guztien aldeko botoekin onartu da.

## 5. Lanpostu Zerrenda aldatzeko proposamena onartzea

Paul Ortegak azaldu du langile lan-kontratudunen lanpostu batzuen derrigortasun-datak aldatzea izapidetzen ari direla, beren lanpostuko euskara-betekizuna betetzen duten titularren kasuan.

Jonan Fernandezek adierazi du Kontseilu Errektoreari dagokiola Lanpostu Zerrenda aldatzeko proposamena onartzea.

Bozkatu egin da eta Kontseilu Errektorearen bilkurara bertaratu diren pertsona guztien aldeko botoekin onartu da.

## 6. Galde-eskeak

Paul Ortegak jakinarazi du proiektuetarako laguntzen deialdia aurkezteko epea amaitu ondoren, espero zirenak baino eskaera gehiago aurkeztu direla, eta bereziki deigarria izan dela eskaeren igoera deialdiaren 3. kapituluan (garapenerako hezkuntza). Igoera hori izan liteke (H)abian estrategiaren esparruan ahalegina egiten ari delako lankidetzan agente berriak sartzeko.

Ez denez beste gairik planteatu, bilkura amaitutzat jo da. Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legearen 18.2 artikulua lehenean paragrafoan aurreikusitakoa betez, akta Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren Kontseilu Errektorearen hurrengo bilkuran onartuko dela jakinarazten da.

Ontzat emana: Jonan Fernández Erdozia  
jauna, Agentziaren eta haren Kontseilu  
Errektorearen lehendakaria, Jaurlaritzako  
Lehendakariaren ordezkotzaz  
(11/2017 Dekretua, apirilaren  
25ekoa).

Paul Ortega Etcheverry  
GLEAren Kontseilu Errektore  
Zuzendariaren idazkaria